

ZENBAT BURU

Ixidor
Solupe

ERREPORTAIA

Ihauteriak
argazkitan

BARREN

1997ko otsailaren 14a
V. urtea - 183. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



KALE INKESTA

Noiz maitemindu
zinen estrainekoz?

UDALETXETIK

Eibarko Ojanguren
enpresa Elgoibarrera

BERBETAN

DEITELeko Amaia
Escudero eta Nerea
Erkiaga

GEHIGARRIA

TxikiBARREN

KIROL

ELKARRIZKETA

Jose Mari Egaña
trontzalaria

KIROLA

Futbito txapelketa



DEITEL
Gipuzkoako
enpresa zerbitzu
onena

“ ‘Ezi n del a egi n’ esat en duenak, best e batek egi n duel a i kusi ko



D.B.H. (E.S.O.)

12-16 urte
B eredu INDARTUA

LEHEN HEZKUNTZA

6-12 urte
B eredu INDARTUA

°HAUR HEZKUNTZA

2-6 urte
D eredu

ESKAITZEN DIZUEGU:

- **HEZKUNTZA ELKARTEA:** (Ikasle, Guraso eta Irakasleak) identifikatua eta partehartzailea.
- **GELA BEREZIAK:** Informatika, teknologia, liburutegia, laborategiak, polikiroldegia, psikomotrizitate gela...
- **EKINTZA OSAGARRIAK:** Kirolak, txapelketak, txangoak, antzerkiak,...
- **JANGELA:** Irakasleen ardurapean.
- **LAGUNTZA PSIKOPEDAGOGIKOA:** Bertako psikologo eta pedagogoarekin.
- **ZENTRO KONTZERTATUA:** 2 urtetik 16ra bitarteko irakaskuntza baimendua eta subentzionatua.

AURREMATRIKULA ZABALIK: otsailaren 17tik 28ra

Urasandi kalea - Tel. 74 13 31 - 20870 ELGOIBAR



IXIDOR SOLUPE

Azken urteetan nahiko ezagunak egin zaizkigun euskararen ezagupen eta erabilerari buruzko gaur-eguneratutako inkestetako batean, berri pozgarri bat irakurtzeko aukera izan nuen orain dela aste batzuk: "...Euskararen ezagutza %64 ingurukoa da Elgoibarren..." Baina nire pozak ez zuen gehiegi iraun. Kalera ateratzerakoan joan zitzaizkidan poz guztiak bertako erdal hotsa entzunaz batera.

Badirudi jendeari ahaztu egin zaiola mende honetako 20. hamarkadan "Euskaltzaleak" deituriko talde sutsu batek -Elgoibarko Sallobente auzoan sortua- euskara eta euskal kulturaren alde eginiko lana edo eta denboran hain urrutit joan gabe, 60.ean "Elgoibarko Izarra" kultur elkarteak eginikoa.

Bi talde hauek, euskararen egoera larriak kezkatutik, erakundeen aldetiko inongo laguntzarik gabe (diktadura denborak ziren haiek), euren lana aurrera ateratzea lortu zuten, lorpenik garrantzitsuen Elgoibarko Izarrak Ikastolaren ametsa egia bihurtzea izan zelarik.

Gaur egun, ordea, hezkuntzan D eta B ereduak, euskara hutsezko komunikabideak -egunkariak, irratiak, astekariak, telebistak-, erakunde politikoaren babes osoa eta euskara zabaldu, indartu eta plazaratzeko hainbat eta hainbat ekitaldi izanik, non ari da geratzen gure euskararen erabilpena? Non nabaritzen da euskara bizirik eta saltoka dabilela orain lerro batzuk izendatutako ekintzetan ez bada? Lantegietan gaztelania da nagusi, baita kaleko herritarren arteko harremanetan ere eta auzoak hizkuntzaren arabera sailkatuz gero, harrituta geratuko ginatete auzotako batzuk elgoibartarrak direla jakitean.

Zein da arazoa? Euskara erabiltzeaz lotsa al

gara ba? Kontzientzia eza? Beste diktadura baten beharra kontzientzia lortzeko? (Ez mesez!!) Gehien harritzen nauena zera da, euskara urteetan zehar ikurrin politiko lez erabilia izanik, euskalduntzat beraien buruak sailkatzen dituzten alderdi politikoek, eragin publikotik at, hau da, beraien barne funtzionamenduan euskarak lekurik ez edukitzea; jaunok, gauzak ez dira goitik behera egiten, behetik gora baizik, eta zuen alderdien oinarritzko funtzionamenduan gure Ama Euskara erabiltzeko gai ez bazarete, nola sinestaraziko diozue herritarrari zuen euskaldun-izateaz?

Gauza bat da ESAN eta beste gauza bat IZAN.

ama/ amagandik sortu dana/
maite du ama/ lurra/ herria/
lurrik gabeko/ herririk gabeko/
amarik gabeko seme- alabak

J. A. Arze

ESANA haizeak darimana, IZANA nortasunaren etorkizun, gaur-egun eta iragana.

Bitartean euskararen normalizazioaren beharrian jarraitzen dugu, baina ez euskal instituzioen aldetik

datarren normalizazioa (ongi etor bedi datorren bitartean), herritarrok gure euskararen erabilpenarekin bultzatuko dugun normalizazio bat baizik. Beharbada euskararen erabilera garapenak beste 35 edo 70 urte beharko ditu, Sallobenten 1926ko urriaren 17an elgoibartar batzuk amestutu zutena lortu ahal izateko.

Bukatzeke, ondorengo bertsoak irakurriz saia gaitezen, beraz, galtzeko bidean daukagun kontzientzia hori aurkitzen:

"Euskal Herrian jai/ta euskera gaitzetsi/euskaldunen izenik/ez dute merezi.

Hizkuntzak jakin arren/azpi edo zortzi/euskaldunak behar du/euskera lehenbizi.

Euskalduna nai/ela/gogoratutzi/an/atsegina sortzen zait/bihotz/ bihotzian.

Euskaldun bat ikusten/dedan bakoitzian/konponbidea sortzen dalgu bion artian."

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak berea aukeratzen du.

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR

☎ 74 41 12

Publizitatea:

☎ 74 37 04

Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA

Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA

Ainhoa Lodoso

ERREDAKZIO KONTSEILUA

Andres Alberdi,

Rosa Agirregabiria eta Mikel Kortabitarte

KAZETARIAK

Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

PUBLIZITATEA

Myriam Aldazabal

MAKETATZAILEA

Maite Rementería

ADMINISTRAZIOA

Amaia Martin

M. Angeles Ortuoste, Rafa Alvarez

KOLABORATZAILEAK

Irati Agirreazaldegí,

Gemma Agirregomezkorta,

Agurtzane Arriola, Edurne Bilbao,

M. Angeles Exposito, Amaia Gorostiza,

Juanito Gorostiza, Antton Iriondo

KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi León,

Jokin Martinez, Juan Luis Mugertza,

Ixidor Solupe, Leire Urkidi

eta Julen Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA

Gertu koop. E

TIRADA

4.000 ale

LEGE GORDAILUA

SS-1.038/92

ISSN

1133-021X

*Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz-
lagundutako
aldizkaria.*



Kutxa fundazioa
fundación kutxa



Elgoibarko herriari:

Pasa den asteko egunak tabernetan eman ditut, aspertuta eta haserre, Udalak eta Alkortak Gaztetxean egindako lana eta lagunak kendu baitzikidate. Ehundaka gazte egon gara Gaztetxean, ordu asko pasa ditugu lanean, garbitzen, margotzen, elkar ezagutzen, ilusioz beteta guregatik eta guretzat eginiko proiektu bat jorratzen...

Baina herri honetan gazteen artean honelako harreman sanoa egon dadin nahi ez duten pertsonak behin baino gehiago atekak itxi eta kale gorrian utzi gaituzte. Nahiago dute urteetan egon den bezala, lokala zikinez eta arratoiz beteta egotea, guk bizia eta poza ematea baino. Udalak Alkortari aparkamenduak egiteko alokatutako telar zaharrak erakusten duen moduan Udalarí gehiago inporta zaizkio kotxeak herriko gazteak baino. Hilik nahi dituzte gure arteko harremanak. Tabernetan itota.

Gure proiektua zilegizkoa da eta berarengatik borrokatzen jarraituko dugu Gaztetxea lortu arte.

Zuk ere gurekin bat egin dezakezu. Zahar edo gazte: idatziozu karta bana Teodoro Alkortari eta Guillermo Garate alkateari. Madalako Gaztetxearen itxierarengatik zure ezadostasuna adieraziz eta lokal hori herriko gazteontzat izan dadin eskatuz.

Teodoro Alkorta
Alkorta y Unzueta y CIA
San Lorentzo bailara z/g
Elgoibar

Guillermo Garate
Elgoibarko Udala
Foruen Plaza, 1
Elgoibar

Lorea

BARENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik.

KEXAK


◆ Ermuaranbideko bizilagun batek deitu du etxe azpiko espaloia txakur kakaz beteta dagoelako. Txakurra kaka egitera ateratzen duenari ohiturak alda ditzan eskatu nahi dio.

◆ Pedro Muguruzan bizi den mutiko talde bat kexu da Muguruzako ikastetxean porteriak eta kanastak aspalditik falta direlako. Berriak jarriko dituztela agindu zuten baina oraindik ez dituzte ipini.

TXALOK

◆ Mutrikuko Institutuko DBHko 1. mailako ikasleak, Kirol Patronatuari eta bereziki bertako zuzendariari, eskerrak eman nahi dizkiote Kiroldegian egon zirenean eskaini zien laguntzarengatik. Elgoibartik aho-gustu onarekin joan omen ziren Mutrikuko ikasleak.

◆ Pilarreko 6. mailako neskek DBHko1. mailako neskek txalotu nahi dituzte ihauterietako asteartean saio oso polita egin zutelako.



◆ Mutiko bat etorri zaigu Atxutxiamaika Begirale Taldea txalotzeko ihauterietako larunbatean antolatatu zuen karaoke bikainagatik, oso ondo pasa baitzuten.

BAI, ESAN?



Andoni Goikolea
Morkaikoko lehendakaria

Morkaiko Mendizale Elkarteko zuzendaritza batzordea berritzeko asmotan dabil. Duela zortzi urtetik **Andoni Goikolea** elgoibartarra egon da **MORKAIKOREN lehendakaritzan**. Urte hauetako balorazioa eta elkartearen etorkizuna nola ikusten duen jakin nahi izan dugu.

– **Zein da lau urte hauei buruz egin dezakezun balantzea?** Denbora honetan eginiko lanari gainbegirada orokor bat eman ondoren, bai bazkideak baita ni neu ere, gustura sentitzeko arrazoiren bat badugu, zeren orain dela lau urte zuzendaritza batzordean sartu ginenetik elkarteak susperraldia bizi izan duela uste baitut, nahiz eta azken aldi honetan batez ere zuzendaritza batzordekoen denbora arazoengatik iharduera maila zerbait gutxitu den.

– **Urte hauetan nola ikusi duzu Morkaiko Elkartearen bilakaera?** Gaur egun 1.800 bazkide gara, baina bereiztu egin behar ditugu elkarteko iharduere-tan parte hartzen dutenak eta elkartean agertu ere egin ez direnak. Azken hauek gehiengo nagusia direla kontuan harturik, gure ekimena bazkide talde mugatu bati zuzendua egon dela dirudi, horrela izan ez den arren. Gure asmoa jendearen ideiak batu eta ahal izan dugun mailan bazkideen gustuko irteerak asmatzea izan da.

– **Lehendakaritzaren erreibua beharrezkoa da elkarteak aurrera egin dezan. Nola ikusten duzu gai hau?** Lanerako prest dagoen talde bat agertzen bada gure laguntza osoa izango duela esan behar dut. Horrela balitz elkartearen etorkizuna ziurtatuta legoke. Baita ere azken urte hauetan elkarteko lan burokrati-koa informatizaturik dagoenez, erraztasun handia izango dute papeleoa eta lanik astunena betetzeko.

AUTOBUSEZ ETA HOTELEAN EGITEKO ZIRKUITUAK

Classy

San Frantzisko, 56
Tel-Faxa: 74 02 40
20870 ELGOIBAR

PICOS DE EUROPA (5egun) P.E.	38.875
BARTZELONA (5 egun) L.G.	29.975
GALIZIAR ERRUTA (6 egun) P.O.	34.000
ANDORRA (5 egun) P.E.	36.850
LA MANCHA (5 egun) P.E.	34.400
PARIS (6 egun) L.G.	32.500
PORTUGAL (6 egun) L.G.	34.000

KONKISTATZAILEEN ERRUTA (5egun) P.E.	34.500
FUTUROSCOPE - LOIRAKO GAZTELUAK (6 egun) L.G.	35.000
KOSTA AZUL-MONACO (6 egun) L.G.	37.000


P.E.: Pentsio erdia L.G.: Lo eta gosaria P.O.: Pentsio osoa


IHAU TE RIAK

Sekula baino mozorro gutxiago

Mozorro gutxi, jende gutxi eta giroa ere antzera. Horixe da inpresio orokorra. Hala ere, dudarik ez dago larunbat eta astearte arratsalde eta gauean mozorrotu zirenek ondo baino hobeto pasatu zutela. Argazkiak ikusi besterik ez dago. Haurrentzako karaokea, pailazoak, txaranga eta suzko zezena ere egon dira aurtengo ihauterietan. Aipatzeko modukoa da larunbat gauerdiko mozorro lehiaketa. Gurutze Gorriko Astaldi taldekoek aurkeztu zuten saioa eta musikaldeetik Luhartz taldeak jarri zuen alaitasuna. Taldekako atalean, "Euskal Tiobiboa" izan zen mozorro irabazlea. Bigarren saria "Ijitoek" irabazi zuten eta hirugarrena "Mediku eroek". Banaka "Reziklaje" mozorroa izan zen irabazlea eta bigarrena "Mari Karmen" izenarekin bere burua bataiatu zuen gizon-emakumezko bat. Hirugarren saria "Vickie, el vikingo" mozorroak eskuratu zuen.

Aurtengoak egin du berea. Datorren urtean gehiago.





Noiz maiteminduzinen estrainekoz?



M. JESUS GARATE
48 urte, sukaldaria

16 urtekin edo, oin neure gizona danaz. Rekuero politxa dakat epoka hartaz. Nik sinisten dot betirako maitasunian, dudarik ez dot euki sekula.



FELI LORENZO
30 urte, garraiolaria

Ez zen berehala izan. Hasieran lagun bezala ateratzen ginen eta gero sortu zen maitasuna. Gaur egun nere senarra da eta San Valentin afari batez ospatuko dugu.



JOSE TORRES
36 urte, mekanikoa

15 urte inguru nituen eta kuadrilako lagun bat zen. Gero gaur egun nire emaztea denaz maitemindu nintzen. San Valentin eguna opariak eginez ospatzen dugu.



VICTOR FERNANDEZ
35 urte, garraiolaria

24 urte nituen nire emazteaz maitemindu nintzen. Aurretik gustukoak egon ziren baina benetako maitasuna emaztea ezagutu nuenean sortu zen.



NEREA ALVAREZ
15 urte, ikaslea

Orain nago maiteminduta, mutil batekin hasi berri naiz. Oso gauza berezia da, polita baina, aldi berean, sufritu ere egiten da. San Valentinen opariak egingo ditugu.



JESUS LENIZ
65 urte, jubilatua

24 urtekin, andria ezagutu nabanian. Lelengo gustau ein jatan eta gero maitemindu ein ginan. Guria bizi guztirako maitasuna da eta bixok ere nahiko romantikuak gera.

MIREN
arraindegia

Santa Ana
74 34 49
ELGOIBAR

JAKIN

- Informatika
- Klase partikularrak
- Kontu eta merkatal gestioa

TALDE MURRIZTUAK
KLASEAK GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ

Errosario, 25- 1 esk. Santalaitz, 4
Tel: 74 08 95 Tel: 76 00 68
ELGOIBAR **BERGARA**

KAROBI
PUB

ELGOIBAR

Tel. 74 06 37
San Frantzisko, 37

Maitasuna kimika kontua da

San Valentín eguna dugu gaur. Otsailak 14. Egun honetan maitasuna adierazten diote elkarri maiteminduta daudenek. Adierazteko moduak mila izan daitezke, denak balekoak, dudarik gabe. Batzuek bihotz formako lepoko bat oparitzen diote bikoteari, beste batzuek larrosa dozena bat bidaltzen eta beste askok musu sentikor baten bidez adierazten dituzte euren sentimenduak. Baina zer da sentimendu hau? Non sortzen da? Zergatik?

Adituek diotenez, maitasunak kimika bat du. Maiteminduta dagoen baten egoera depresioa duen baten egoeraren kontrakoa da, neurrigabeko euforia egoera, hain zuzen.

Gorputzeko hormonak dira maitasun sentimendua sortarazten dutenak. Hormona horiek eta substantzia kimikoak gehitzen direnean gure burmuinean maitasun sentimendua sortzen da.

Zer sentitzen du maiteminduta dagoen batek? Euforia, eta bizitzaren alde ederra apreziatzen du. Tristurak desagertu egiten dira eta errealtatearen apreziazio objektiboa galdu egiten da. Fisikoki nekea hobeto jasaten da eta hiperaktibitate sententzia sortzen da. Medikatu bat "an-

fetamina zerebral hipotetiko" batzuek sortzen direla esatera ausartu zen. Gaurdaino, sekula ez dira substantzia hauek topatu giza gorputzean.

Musua

Zergatik musukatzen dira pertsonak maiteminduta daudenean? Gaurdaino ez da azalpen argi bat topatu. Ez omen da ekintza kultural ez eta biologiko bat ere. Dermatologo batek esan zuen behin, bere ustetan, musukatzen garenean, pertsona batek bestearen substantzia kimikoak analizatzen dituela. Musukatzen ari den bikote bat azken finean, seinale biologikoak elkartrukutzen ari da. Pertsonen azalean dauden seinale semiokimikoak dira, maitasunaren eragile direnak. Substantzia hauek mami-feroek dituzte eta aurpegian, buruan eta ditiburuen inguruan kokatzen omen dira.

Kimika kontuak alde batera utzita, ukatu ezin daitekeena zera da: emakume zein gizonezkoei buruhauste gehien sortarazten dien sentimendua dela maitasuna, maitasuna sentitzea batzuetan eta sentimendu horren falta besteetan. Literatura, zinea, giza zientziak eta beste zientzia asko izan dira gai honi buruzko azterketaz arduratu direnak baina gauza bakarra dago argi: pertsona batekiko maitasuna zergatik sortzen den misterio handi bat izaten jarraitzen duela.



1997-II-14

iSPI- DEGIRA



*Kristina
Alvarez*

DONNA
ileapaindegikoa

- **Zerk jartzen dizkizu ileak puntan?**
- Politikak.
- **Burusoilentzat ba al dago erremediorik?**
- Julio Iglesiasek ilea galdu arte, ez.
- **Erabiliko al zenuke pelukarik?** - Ez.
- **Zein ile orrazkera duzu gustukoena?**
- Neretzat ile luzia eta rizaua.
- **Eta kolore bat?** - Kaoba.
- **Sekula egingo ez zenukeena?** - Ilea dekoloratu.
- **Mozorroto al zara?**
- Bai, Epokako dama moduan.
- **Nor orraztu nahi zenuke?** - Brad Pitt.
- **Zure bizitzan permanenteki mantendu nahi zenukeena?** - Dirua.
- **Zein kolorez tindatuko zenuke etorkizuna?**
- Urdinez.
- **Zein zorakeria egingo zenuke maitasunagatik?** - Parakaidasean bota.
- **Moda jarraitu ala egokitu?** - Jarraitu baina ahal den neurrian pertsonari egokituz.
- **Hautzaroa gogorarazten dizun zerbait?**
- Pinuen usainak Soria, aitaren herria gogorarazten dit.
- **Umetan zer izan nahi zenuen?**
- Enfermera edo...
- **Eta nolatan ileapaintzaile?**
- Amak izan nahi zuen eta beti animatzen ninduen.
- **Zenbat urte bizi nahi zenuke?**
- Asko baina osasunarekin.
- **Aldizkariren bateko harpidedun al zara?**
- Ez, pelukeriarako erosten ditut baina ez ditut gehiegi irakurtzen kotileo horiek.
- **Astebukaerarako planik onena?**
- Zapatu arratsaldean siesta eta gauean juerga.
- **Zer da makilaia naturala?**
- Ahalik eta gutxien igartzen dena.
- **Zu makilatzen al zara?**
- Astebukaeratan bakarrik.

● Farmazien txandak

Otsailean zehar, larunbat eta igandeetako Elgoibarko farmazien txandak eguerdiko 2ak arte izango dira. Ordu horretatik aurrera Plazentzia eta Mendaroko farmazietara joan beharko da. Datorren hilean, berriz, larunbat eta igande osoan zehar txanda egitea tokatzen zaion farmazia egun osoz egongo da irekita.

● Gazte Asanbladak eskutitz kanpaina hasi du

Gazte Asanbladak Madalako tailerraren jabea den Teodoro Alkortaren eta Gillermodo Garate alkatearen artean negoziazio bat bultzatzeko kanpainari ekin dio. Asteazkenean zehar kartelak jarri dituzte kaleetan eta asteazken iluntzean kontzentrazioa egin zuten bertako partaideek Udalteixe aurrean. Kanpaina honen helburua herritarrek alkateari eta Alkorta jaunari eskutitzak bidaltzea da, Gaztearearen inguruan akordio batera hel daitezela eskatuz. Kanpaina larunbat iluntzean egingo den manifestazio batekin amaituko da.

● Zuzendaritza berria Gure-Biden

Joan den hilean Gure-Bide Txirringulari Elkartek 97rako zuzendaritza aukeratu zuen. Hauexek dira batzorde berria osatzen dutenak: Lehendakaria Jose Ignacio Elcoro-Iribe. Ordezkoa, Juanito Gorostiza. Txomin Loiola koordinatzailea. Gillermodo Gorostiza idazkaria; diruzaina, Jose Mari Bastida eta kontablea, Julio Mugerza. Batzordea, berriz, honako hauek osatzen dute: Javier Arregi, Manolo Gurrutxaga, Jesus Arakistain, Javier Gurrutxaga, Enrike Martínez, Ramon Artola, Francisco Machado, Francisco Idiakez eta Francisco Aranberri.

Garraiolarien grebak generoaren eskasia sortu du industria eta merkataritzan

Garraiolarien grebaren eragina hasi da igartzen dagoeneko zenbait produkturen hornikuntzan. Elgoibarko gasolindegian adibidez, auto ilara luzeak sortu dira asteartetik hona. Zenbait egunetan beharrezkoa izan da Udaltzai-



nen presentzia gasolindegian trafikoa antolatzeko. Izan ere, piketeak direla eta, errekin ez dago ziurtatuta eta jendeak autoa gasolinaz betetzeari ekin dio. Asteazkenean esaterako, herritarrek ezezik, kanpotar asko ere hurreratu zen Rezola gasolindegira errekin hartzera. Eibarko eta Azkoitiko gasolindegietan asteazkenean ez zegoen errekinik. Enpresa eta dendetan, berriz, zenbait produkturen eskasia oso nabarmena da. Eroskiko arduradunak esan digunez, “produktu asko ekartzeko arazoak ditugu, hornikuntza “goteo” modukoa baita. Zerbait behar dugunean garraiolariarekin kontaktuan jarri eta furgoneta txiki batean ekartzen dira produktua”. Eroskiko estanteria asko hutsik daude, “olio meherik ez dago, esnea ere gutxi, azukrea eta freskagariak ere falta dira”. Horrela bada, bezero bakoitzari 4 litro esne saltzen zaizkio eguneko, eta datozen egunotan agian olioarekin beste horrenbeste egin beharko dugu”.

Rodisako langile eta Elgoibarren oso ezaguna zen Eugenio Aranburu “Mallabi”

Astelehenean bere buruz beste egin zuen Eugenio Aranburu, HBko Mahai Nazionaleko kidea, Elgoibarko Rodisa lantegiko langilea zen. LAB sindikatuko metaleko adarreko ordezkaria eta Rodisan sindikalismoaren alde gogor borrokatutako gizona. Rodisako LABeko Vicente Villar eibartarrarekin kontaktuan jarri gara eta berak esan digunez, “Eugenio betidanik ezagutzen nuen, sindikalismoaren aldeko borrokalari sutsua zen gainera”. Villar-en arabera, Eugenio 73an sartu zen Rodisan. LKIn ibilitakoa, Rodisan CCOOen hasi zen baina 1982an, LABera pa-

satu zen. 1977ko hauteskunde sindikaletan lider bezala azaltzen hasi zen Eugenio Rodisan, “1982tik aurrera LAB lehen indar sindikala izan zen lante-



gian”. Azken hauteskunde sindikaletan, 95ekoan, bi indar besterik ez zeuden Rodisan. LAB indar nagusia, 6 ordezkariarekin eta CCOO bigarrena 3rekin. Villarrek esan bezala, “Eugenio erreleboan egiten zuen lan eta, eguerdiko 2etatik gaueko 10etako errelebo bazeukan, goiz osoa, hau da, lanera sartu arteko orduak Eibarko LABeko egoitzan ematen zituen. Oso langilea zen eta pertsona konprometitua sindikatuarekin eta MLNV delakoarekin”. Eugenio Aranburu Elgoibarren bizi izan zen urte askoan eta gure herrian “Mallabi” izenez zen ezaguna.



Txankakuaren zozketaren sari banaketa

Txankakuak Canariar irletara bidaiaren sari banaketa egin zuen asteazkenean. Irabazlea Nerea Ezkurra (argazkian erdian) izan da eta Tenerifeko hegoaldean astebete pasatuko du beste pertsona batek lagunduta. Zerbaki saritua urtarrilaren 10ean egin zen ONCEko zozketarekin bat zetorrena zen.



Santa Agedako koruak

Santa Agedako koruak larunbat goizean kantari atera ziren, lehenengo auzoetan eta gero, kaleetan zehar. Batutako dirua Arrasatera eramaten da bertan konta dezaten eta ohi denez, Caritas elkarteari emango zaio. Eguerdian Baltasar elkartean bazkari baten bueltan bildu ziren koplari, soinu-jole eta batzaileak. Okasio honetan Sabino Sorondo, Donostian elgoibartarren aldeko mezak antolatu izan dituen omendu zuten.



Holandarrak Gestio Eskolara bisitan

Holandar ikasle talde bat da argazkikoa. Astebete igaro dute Elgoibarren, Gestio Eskolak gonbidatuta. Elgoibar eta inguruak, enpresak etab. ezagutu eta astebete ederra gure artean pasatu dute bai eta Marketing ikasketak sakondu ere.

● Elgoibartar batek hirukiak izan ditu

Juan Ramon Larrañaga 37 urteko elgoibartarrak eta bere emazteak, Maria Isabel Burgaña 36 urteko mutrikuarrak, hiru seme-alaba izan zituzten joan den hilaren 3an, San Blas egunean. Juan Ramon Bergarara dago ezkondua baina bere familia osoa Elgoibarren bizi da. Hirukiak bi mutiko eta neskato bat izan dira: Mikel, Iker eta Goizane. Jaiotzerakoan bi kilo eta erdi pisatu zituen bakoitzak, hortaz, ez zuten inkubadoraren beharrik izan. Joan den dokmekan etxera eraman zituzten eta haurrentzako kotxetxo eskuratu bezain pronto Elgoibarren pasiaran ikusi ahal izango ditugu. Zorionak!

● Parrokiko telefonoa

Parrokiaren telefonoa zaharra, 74 01 42, etxe partikular batekoa da eta bertan bizi direnek eskatu digute, jendeak ez dezala deitu zerbaki horretara. Parrokiako telefono berria 74 08 42 da, eta ez 74 01 42.

● Salbatorea konpontzeko eskea

Salbatorearen irudia berritzeko eratu den "Salbatorearen Lagunen Batzordea"k diru-eskea hasi du konponketen kostua, 150.000 pta. inguru, ordaindu ahal izateko. Irudia nahiko ondo dago kontserbatua. Hala ere, hondodak ei ditu egurrean eta esku batean bi atzapar falta zaizkio. Hogei bat egunen buruan konponketa lanak bukatuak egon daitezke. Diruz lagundu nahi duten herritarrek honako denda hauetara jo dezakete eskupekoak uzteko: Bidasolo, Etxeberria, Ormazabal eta Yudego farmaziak, Astigarraga loradenda, Antxustegi Keramikak eta Muruamendiaraz gozotegia.



Elgoibarko Izarraren 5. urteurrena

Elgoibarko Izarra Elkarteak etapa berriko 5. urteurrena ospatu zuen pasa den ostiralean Kultur Etxean egindako ekitaldian. 30 lagun inguruk Izarren Hautsa berriraparean eta diapositibetan 5 urteoi buruzko erreparazioa ikusteko aukera izan zuten. Urte bakoitzeko helbururik garrantzitsuenak zein izan den azaldu ostean, Elkartearen organigrama eta funtzionamendua azaldu zuten ordezkariak bai eta datozen bost urteetarako dituzten asmoen berri eman ere. Elkarteko esanetan, "bost urteotako balorazioa positiboa da. Hurrengo urteetan beste horrenbeste asmatzen badugu, pozik egoteko bezalako izango da".

Ojanguren-Markaide enpresa eibartarra Elgoibarrera dator

Lagun inguruko lur industrialaren jabe nagusia Gure Etxetxo izan arren, beste akzionista batzuk ere badaude: Lagun, Fidel Maria Bazarra, Eulario Lauzirika, Modesta Agirrebengoa eta Elgoibarko Udala. Aipatu terrenoen plan partziala egin zen eta obrak egiteko behin behineko lizentzia emana dago. Izan ere, bertara hurre-ratzen den edonork ikus dezake hasi direla hainbat obra dagoeneko eta, jakin ahal izan dugunez, Eibarko Ojanguren-Markaide enpresak du Elgoibarrera etortzeko asmoa.

Ojanguren-Markai-de enpresak altzarientzako sarrailak eta burdineriak fabrikatzen ditu. Gaur egun 72 langile daude plantilan eta enpresako iturrien esanetan, "espazio faltak bultzatuta egin da trasladoa". Izan ere, Eibarren tokia txiki geratzen hasi omen



San Pedro lantegi zaharreko lurretan hasi dira Ojanguren enpresa eibartarraren lantegi berria eraikitzeko lanak.

zitzaien eta Azitaineko Industrialdean berehala betenez, Elgoibarko Lerun ingurua aproposa iruditu zitzaien.

Gillermo Garate alkateak esan duenez, "aspalditik datorren kontua da eta mugimendua eman nahi genien terreno horiei". Izan ere, metro karratu gehiegi ez diren arren horiek nola edo hala erabiltzen hasia da baldin eta herriari bizitza eman nahi bazaio. Mo-

mentuz Ojanguren-Markaide enpresa eibartarrak 5.000 m² erosi ditu eta beste 10.000 m² inguru geratzen dira terreno haietan. Joan den astean aurreratu genuen bezala, Karkizanoko lur industrialen plan partziala ere martxan da. Garateren hitzetan, "enpresak etortziak bate-tik diru sarrera bat suposatzen dau, eta guk ahaleginak eingo ditxugu, epe ertaine-

ra lanpostuak sortuko direla herritarrentzat".

Sigmako pabiloioak

Sigmako pabiloien inguruan ere bada zeresanik. Alkateak azaldu digunez, "laster enbargo-subasta edo holako zeozter ingo da eta Haizenda, Eusko Jaur-laritzako Industria Saila, Inem, Seguritate Soziala eta Fogasa izango dira soziuak. Hortik aurrera hipotesi desberdinak daude. Soziuek nahiko luketena da enpresa handi bati saltzia Sigma oso-osorik eta dirua euren artian garbi-garbi banatzia". Halere, alkateak jakinarazi digunez, "neure asmua litzateke estudixo bat eixia eta horren arabera Sigma osua edo zati bat botatzia. Beste hipotesi bat izango li-tzateke mikro-enpresentzat ego-kitzia eta prezio merke bati-an lagatzia". Halere, Sig-maren gaia erabakitze-ko dago oraindik eta gauzek zein bide jarraituko duten ikusgai dago.

Pedro Muguruza 5
Tel 74 08 06
20870 ELGOIBAR

**ASESORIA
GO/AR**

AHOLKULARITZA

- KONTABILITATEA
- AHOLKULARITZA FISKALA
- LAN AHOLKULARITZA
- ALLIANZ ERCOS ASEGURUAU
- MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAU

San Bartolome 1. Tel:74 26 74/02 34 Fax:74 21 29 ELGOIBAR

BARREN

L.H.KO IKASLEEKIN EGINDAKO 30. GEHIGARRIA




Rin, Ran, Ron entzuten zen. Neska-mutil hauek soinua-
ren erritmoarekin dantzan
ari ziren, ekipo desberdine-
takoak izan arren elkarlane-

an, jende aurrean ibiltzen ohitzen,
jaialdi bateko partaide izaten.
Argazki kamerak 2 eta 3 urteko nes-
ka-mutilen saioari oroigarri hau
lapurtu zion Ikastolako jaialdian.

Tristeia

Dena berdin zaion pasotila bat
bizartegira sartzan da; eseri eta
esaten du buru makur:

- Moztu bizarra.
- Altxa, ba, burua.
- Tira ba! Orduan moztu ilea.



Jakitunen eskutik

Arazoak ditut lagunekin. Zer egin dezaket?

Gai hau oso zabala da lerro gutxitan laburtzeko, hala ere ideia orokor batzuek azaltzen saiatuko naiz.

Nire ustez, umeak lagunekin izaten dituen arazoek besteekin harremanak izateko trebetasun eza adierazten dute. Izan ere, zorionsuak izateko komunikatzen ikasi behar dugu.

Jaiο garenetik gurasoek besteen arreta erakartzeko modu ezberdinak irakasten dizkigute. Hau da, bortxakeria, menpekotasuna eta edozein motako portaera txikietatik ikasten dugu. Beraz, lagunekin harreman onak edukitzea gurasoen eskuetan dago neurri handi batean. Nik pentsatzen dut gurasoοi dagokigula gure seme-alabei portaera arau batzuk erakustea: entzutea, elkarrizketa bat hasi eta jarraitzea, galdera bat egitea, eskerrak ematea, norberaren eta beste pertsona batzuen aurkezpena egitea, barkamena eta laguntza eskatzea, partehartzea, etab.

Honelako portaerak edukitzeko oso garrantzitsua da, hobe esanda, derrigorrezkoa da nork bere burua onartzea. Hau esan eta gero, lehenengo galderari aurre egiteko prest gaude, hau da, zer egin dezaket lagunekin arazoak baldin badituz?

Egia esateko, arazo mordoak hitz eginez konpontzen direla pentsatzen dutenatarikoa naiz. Baina horretarako gure buruarekin hitz egin ezezik, honaino ere ailegatu behar dugu, zer egin dezaket "nik" nire arazoak konpontzeko?

Izan ere, oso ohituta gaude besteei erruak botatzen, baina batzuetan gertatzen

zaizkigun gauzak guk sortzen ditugu. Esate baterako, gazteek, nerabeak batez ere, arazo mordoak edukitzen dituzte taldekideekin. Normalean besteek ez dituztela onartzen pentsatzen dute.

Pentsaera horrek honelako gogoetak sortarazten dizkie: "Ez dut ezertarako balio eta honen ondorioz ez naute onartzen" edo kontrakoak, "besteak txarrak dira".

Lehenengo motako arazoak ugari izaten dira. Hala eta guztiz ere, bai bata bati besteak gazteak atzerantz jotzera bultzatzen dituzte. Honen ondorioz, bakarrik eta zapuzturik ere bizi dira. Zer egin bada, horrelakoei aurre egiteko?

Lehendabizi, atzerantz egin baino aurrera egin. Erruak onartu eta arazoak konpontzeko nahia izan behar da. Bestela, galdetu lagunei zer gertatzen den. Hau entzun eta gero, mina sentitu arren, entzundakotik lagun diezadanarekin geratu eta bestea baztertu. Honez aparte, laguna izaten ikasi behar dut, horretarako trebetasunak ezinbestekoak dira. Esate baterako, baimena eskatu, besteari ahal dugun guztia utzi, besteei lagundu, nire eskubideak eta lagunak defendatu, salaketa bati erantzun, etab.

Horrelako portaerak denok, bai, gazteak bai nagusiak ikasi behar ditugu, gurekin bizi direnekin harremanak ahalik eta onenak izan daitezten.

Bukatzeko, zera esan behar dut: besteekin ondo konpontzeko geure buruarekin ondo konpondu behar dugula, hau da, gure burua maitatzen ikasi behar dugu. Hori ez egitekotan, lehen esan dudanak ez du ezertarako balio.



MONTSERRAT YRAOLAGOITIA
PSIKOLOGOA

Zer iritzi daukazu *San Balendin eguna* ri buruz?



"Maitasuneg murrunkatzeko eguna da."

MIREN MUGERZA, 7 urte



"Kupido deitzen den aingeru txiki batek bere geziarekin ikutzen zaituenean hableak zurrutzatzen zaizkizu eta maitemindu egiten zara."

ALAITZ MERINO. 11 urte.



"Oso ondo iruditzen zait San Valentin eguna maiteminduek oso ondo para dezaten."

SAIOA GONZALEZ. 9 urte



**LUIS ANGEL
CENTENO**
10 wtvg

Galde debalde

- 1- Zein marrazki bizidun gustatzen zaizu?
- 2- Nor ezagutu nahi zenuke?
- 3- Zer oparituko zenioke zure andre/senargaiari?
- 4- Nolako imaginatzen duzu Paradisua?
- 5- Norekin bizi nahi zenuke bertan?
- 6- Zerez betetako biberoia edango zenuke?
- 7- Bibotea ala bizarra?
- 8- Zer ez zenuke izan nahi handitan?
- 9- Nork egiten du zure ohea?



JOANA RUIZ
10 wtvg

- 1- Dragoi Bola.
- 2- Ronaldo
- 3- Lorak notatxo batekin.
- 4- Menditsua, itsasoarekin eta autorik gabe.
- 5- Amarekin.
- 6- Coca-Colaz.
- 7- Bibotea.
- 8- Baserritarra.
- 9- Batzuetan nik eta beste batzutan amak.

- 1- Ez jataz gustatzen.
- 2- Spice Girls taldea.
- 3- Bonboiak.
- 4- Berdia, landare morduekin, itsasua, garbixa...
- 5- Lagunekin.
- 6- Coca-Colaz.
- 7- Bibotea ze, bizarrak asko pikatzen dau.
- 8- Idazkaria.
- 9- Nik.

Zer da... *ilusioa*.....?

EDIKA FERNANDEZ 13 URTE



"Bizitza honetan inoiz falta behar ez zaiguna."

CARMEN LENDINEZ 10 wtvg



"Ilusioa da loteria tokatzen zaizunean. Hori bai dela ilusioa!"

JAIDO IBARRA 13 URTE



"Betetzeko zaila den ametsa edukitzeari deitzen diot nik ilusioa."

IOSU GARITAGOITIA 8 wtvg



"Extremadurara joateko daukadan gogoia."

AITOR NOVA 11 URTE



"Zure ekipoak Liga irabazten badu sentitzen duzuna."


CARLOTA CASTRILLO 8 wtvg



"Oporrak, karnabalak eta nire urtebetetzea heltzea. Hori da ilusioa neretzat."

Denborapasak: ezetz asmatu!

1. Nor da kirolari hau?



2. Zer galdetu diegu?



RENE JORRI
10 urte

"Jean Claude Van Dammek egindako edozein pelikula, akziozkoa. Gustatuko litzaidake bera ezagutzea eta handitan bera bezalako aktorea izatea".

NEREA LAZKANO
6 urte

"Campanilla ze, oso politxa da eta gainera hegan eitzen dau. Gainera, Peter Pan-en laguna da eta asko gustatzen jata. Bideuan dakat etxian eta nahi doten guztietan ikusten dot".



ERANTZUNAK: 1.-Alberto Inurategi! 2.-Zein pelikulako aktore izan nahi zenuke?

Artisten txokoa



TXISTEAK

- Ea, Gaizka. Ba al dakizkizu bi izenorde?
- Nork, nik?
- Bikain mutiko. Ea hurrengo!
- Zerbitzari! Ekar ezazu beste zopa bat, honek euli bat dauka eta.
- Lasai, gizona, plateraren ertzean dagoen armiarmak laster jango du eta.
- Zerbitzu sekretuen egoitza al da?
- Barkatu, baina ezin dizut esan.

Ikastolako 6. mailako ikasleak

Duela bi urte eta erdi inguru, merkatuan zegoen hutsunea ikusita eta autoenpleguaren ideiak bul-tzatuta, "Deitel" sortu zuten Amaia Escudero, Ne-rea Erkiaga eta Rosa Arandak Elgoibarko Lanbide Eskolaren laguntzaz. Hasieran Elgoibarren, gero Eibarera joan ziren. Pasa den astean Gipuzkoako Merkataritza Ganbarak urtero ematen dituen sarietarikoa bat jaso zuten, "96ko Gipuzkoako Zerbitzu Enpresa Onena"rena.

AMAI A ESCUDERO

"Gazteen etorkizuna autoenplegua da"

- Deitel bakarra da bere sektorean.

- Bilbo, Donostia eta bestelako hiriburuetan ere badago baina eskualde honetan ez. Bakarrak gara eta inguru honetan dagoen industri kantitatea ikusita garbi ikusi genuen hutsune bat zegoela eta guk lan egin genezakeela.

- Zer da Deitel?

- Gestio administratiboa eskaintzen diegu beharra duten enpresei, bai lan puntualak direnean baita iraunkorrak ere. Tele-marketing-a ere egiten dugu, nondik jo nahi duten aztertu, gidoia idatzi, telefono deiak egin, elkarrizketak, datuak jaso, mailina... prozesu guztia jarraitzen dugu. Karga administratibo guztia gure esku uzten dute eta euren negozioetara bete-betean dedikatzen dira. Gainera, kosto

aldetik merkeagoa ateratzen zaie pertsona bat kontratuean izatea baino. Horrez gain, profesionalak gara eta enpresaren irudi eta kalitatea hobetzen dugu. Hori guztia flexibilitatea guztiarekin, hau da, beharra dutenean bakarrik etortzen dira guregana eta nahi dutenean utz dezakete.

- Eta nori zuzendua da go?

- Enpresak, instituzioak, udaletxeak eta baita lanbide liberaletara ere.

- Gaur egun zenbat bezero dituzue?

- Batzuen eta besteen artean, hau da, lan iraunkor eta puntualen artean batz bestea 50 bezero inguru ditugu.

- Bi urte daramazue martxan. Zaila izan al da?

- Eguneroko lana da zaila. Bezero berri bat etortzen

zaizun guztietan gauza diferente bat ikasi behar duzu, asimilatu behar duzu eta bezeroa gustura geratu behar da. Horrez gain, etengabean innobatzeko egon behar duzu, bezeroei merkatuan azaltzen diren zerbitzu berriak eskaini behar dizkiegu eta horrek gu ere etengabean reziklatzen egotea esan nahi du. Orain, esate baterako, korreo elektronikoa eta internet sareak ere eskaintzen hasi gara.

- Sariak zer suposatzen du?

- Hasteko, rekonozimendu handia. Horrenbeste lan egin eta gero, Gipuzkoako mailan enpresa onenetarikua zerala rekonozitziak poz handia ematen du.

- Ba al duzue enpresa handitzeko asmorik?

- Bai. Plan estratergiako bat martxan daukagu eta beste toki batzuetara ere zabaltzeko asmoa badugu bai eta zerbitzu gehiago eskaintzeko ere. Iaz jarri genuen martxan, esate baterako, proiektuen gestioa deitzen dena. Edozein bilera, seminario, jardunaldi eta abar antolatzeko irtenbide integral eta sortzailek proposatuz. Horretan ere pioneroak gara eta gero eta gehiago hedatzea nahi dugu. Gauza puntaletarako subkontratu egiten ditugu.

- Jende gaztearen etorkizuna, beraz, autoenplegua da?

- Bai, gure esperientziak argi erakutsi digu baietz. Formazio ona duen profesional batek ideia on bat badu, martxan jar dezala. Mentalidatea aldatu behar da, 8 orduko lana eta kontratuarena oso zaila da gaur egun eta enpresak sortzeko laguntzak badaude.

BESTEAK ESANA

"Ideia berri batekin sortu zen Deitel eta harrera ona izan du. Txankakuan oso gustura gaude. Horrelako ekimen gehiago egon beharko lirateke"

JUAN LUIS ASTIGARRA.




Adi irakurle!

**ELGOIBARKO
GAITZIZENAK
EZAGUTU NAHI
DITUGU!!!**

Laister batean atal berri batekin hastea nahi dugu txoko honetan. Gure asmoa bertan Elgoibarko goitizen edo gaitzizenak biltzea da, aste bakoitzean bat aztertuz. Hau da, nondik datorren horrela deitzeko ohitura, nori deitzen dioten izen horrekin, zergatik, etab.

Atal hau irakurleen esku dago, hortaz, zuen laguntza behar-beharrezkoa zaigu. Zure goitizena edo ezagutzen duzun beste edozeinen nondik-norakoak emateko BARRERera etorri edo 74 41 12 telefono zenbakira deitu. Benetan eskertuko dizugu.

**Marcos
Astigarraga
Ansola Pilotaria
(1887-1926)**



● 1887ko apirilaren 13an jaio zen Errezabal baserrian.

● Eskuzko pilotan hasi zen. Bikote bezala batzuetan eta aurrez aurre besteetan izaten zituen Txikito de Azkoitia eta Kantabria. Hirukote ospetsua osatzen zuten.

● Erremontean aritu zen geroago. Espezialista omen zen sakean. Erremontea lagata, Donostiako Jai-Alai frontoiko intendente izendatu zuten.

● Maria Elorza altzolatarrarekin ezkondu eta Donostian bizi izan ziren. Bi alaba izan zituen bikoteak: Victoria eta Concha.

● Zaletasunen artean korrikarako zeukan erraztasuna aipatu behar da. Behin, Orioko zubian Iturain pilotariaren aitaren aurka egin zuen korrika.

● Oso pilotari ezaguna izan zen. Hendaiako Pilotaren Museoan bere argazki bat omen dago.

● 1926ko abuztuaren 5ean hil zen 39 urte besterik ez zituenean.



**AURELIO MUJIK
LARRAÑAGA**
*-Goian bego-
Elgoibarren hil zen
otsailaren 6an, 84 urterekin.*

*Benetako euskaldun
jatorren kidea
beti erabili duzu
nekezko bidea
zuk ondo bete duzu
euskaldunen legea*



EAko alderdikideak



ste honetako erretratu hau ez da aurtengo ihauterietan ateratakoa, ez alajaina! 1968ko otsailaren 27an atera zuten eta bertan azaltzen den batek ekarri digu (izenik ez duela azaltzerik nahi esan digu).

Bere hitzetan, "sasoi hartan Elgoibarren jendea ez zen disfrazatzen gaur bezala". Mozorro-tzeko moda

geroagokoa dela adierazi digu. Txarridunak afaldu omen zuten eta Mekanikakoek ikas-bidaiarako dirua ateratzeko Merkatu Zaharrean antolatutako berbenara joan ziren afa-lostean. Berbenan zer egin zuten ez digu kontatu.

Ezkerretik eskumara, tente: **Mari Asun Mendikute, Isabel Vazquez, Aintzane Sanchez, Maria Isabel Zabaleta, Mari Sol Altuna, Amaia Arriola, Angelita Larrañaga eta Maite Arozena.**

Makurtuta: **Mari Juli Konde, Ana Maria Txurruka eta Mari Karmen Jauregi.**

- Kontabilitate
- Lan
- Fiskal



**URKIDI
AHOLKULARITZA
ASEGUROAK**

Kalamua 12
ELGOIBAR
Tel-Fax:
74 18 91




**CRISTALERIA
ELGOIBARRESA C. B.**

*Bidriera artistikoak
Obra komertzialak*

Urasandi 12 behea
Tel-Fax: 74 04 89

“Trontzia ez da bat ere potentziatzen”



Jose Mari Egaña

- **Adina:** 46
- **Oporretarako leku bat:** Errioxa aldia.
- **Bakeroekin eroso?** Maoizkuekin komodu.
- **Oparitzeko lora bat?** Krabelina.

- **Zenbat enbor moztuko ote zenituen gaur arte?** - Zaila esan dozu. Ezin hori kalkulatu ze hamasei bat edo hamazazpi bat urte daruat trontzan.

- **Nolatan hasi zinen?** - Herri mailan herri kirolen jaialdixak hasi zian, Deba Behekuak. Ordurarte ez zan hamen trontzarik ikusten. Jaialdixan parte hartzeko ekipua ein bihar zan. Elgoibarren San Migel eta San Rokeko ekipuak sortu zian; Mendaron ere beste bat... Bi-hiru urte ein genitxun hola.

- **Trontza beti bikotean egiten al da?** - Beti. Gaur arte makina bat lagun pasau ditzut. Hasi anaixakin. Oin seigarrena daruat, Mendaroko Florentino Agarre-Txiki. Ejerziziua oso konpletua da, besuak, gerrixak eta hankak ibiltzen diaz. Gustagarria da eta horretxegatik segitzen diot.

- **Txapelketetan ibili izan zara?** - Bai, iaz jun ginan. Azken-azkenian berotu ginan eta bastante ondo azken orduan pentsauta izateko. Aurten ez dakigu jungo geran. Trontzia ere aldatuta dao, Australianua sartuta dao eta guk eztaukagu haura. Aizkorian ere berdin, hemengua ezkutau zan eta Australianua erabiltzen da. Guk hemengo trontzia dakagu, zorrozkeran oso desberdina da, haginak diferentiak. Kanpoko trontzia nekesuaua da baina abantzia handixaua. Aprobau deu baina hoge bat mila duro balio ditzu.

- **Nola ikasi zenuen trontzan?** - Jardunian esan leike. Ibili zianekin aprobauta eta zekixanakin erreparatzen. Txurruka zana bera ere ibili zan trontzan eta harekin ere ikesi naban. Hala ere, ez da sekula ikesten amaitzen.

- **Trontzak duen zailtasun nabarmenena?** - Delikauena da beti segi ein bihar dala, ez daola etenik. Hasieran beti eukitzen dau bere trukua. Ibilixan baitxa lepozainak ere mindu eitzen diaz. Fisikoki fuerte eon bihar da.

- **Jarraitzeko asmorik?** - Florentinok badakaz 50 urte edo eta nik 46. Aurtengua lotuta daukau eta segitxuko dou. Lehen kanpo aldera juten ginan gehixo. Deitzen diguten tokira jungo gera.

- **Trontzaren etorkizuna nola ikusten duzu?** - Gazterik ez dao, zelan trontzak ez daban dirurik ematen... dnak futbolera! Disziplinia ere bihar da eta eskolan ere ez danez potentziatzen... Desagertu ez da ingo kanpeonatuak segitzen daban bitxartian.

- **Beste herri kirolik egin duzu sekula?** - Exibiziuetan lasto-jasotzia ein izan dot eta gaztetan harri jasotzen ibili nitzan baina gerrixan kolpia hartuta laga bihar izan naban. Gure sasoiari ein gabe ko harrixak zian. Oin besteko harrixak eon balia... Trontzian ere heldulekua aldatu ein da, komoduaua da oingua.

ESKOLARTEKO JOKOAK

EMAITZAK

ARETO FUTBOLA

- **Alebin neskak** ■
Pilar Star Girls 12 - Mendaro C 0
Pilar Mix 9 - Ikas Laino 0
Ikas Sei 6 - Ikas Trumoi 0
Ikas Beder 15 - Ikas Txingor 1

SASKIBALLOIA

- **Infantil mutilak** ■
Ikas Urdin 24 - Pilar Inter 10
Ikas Pirri 23 - Pilar Boys 27
Ipurterreak 44 - Herri Milan 42
Ikas Txuri 14 - Ikas Amantis 22
- **Infantil neskak** ■
Ikas Katxondak 15 - Pilar Girls

AGENDA (Larunbata 15)

8
Ikas Beltz 8 - Peña Insti 25

ESKUBALLOIA

- **Benjamin mutilak (Kiroldegian)** ■
9,00 Mendaro A2 - Pilar Laka-sitos
9,30 Ikas Zirt - Pilar Flahs
10,00 Ikas Txut - Mendaro A1
10,30 Ikas Kirol - Ikas Mazarro

- **Benjamin neskak (Kiroldegian)** ■
11,00 Ikas Zart - Ikas Izurde
11,30 Pilar Usoak - Ikas Izar
12,00 Pilar Kas - Mendaro B

FUTBITO TXAPELKETA



A Taldea	Jokatuak	Irabaziak	Berdinduak	Galdutak	Puntuak
SANROKETARRAK	8	7	0	1	14
PSK	8	6	1	1	13
KOSAKOS	7	4	2	1	10
MASER	8	3	2	3	8
BAR HERMINIOS	8	3	1	4	7
S. BRAGA	8	1	3	4	5
IKUS OPTIKA	8	2	1	5	5
SORPRESA	7	1	2	4	4
MENISCO	8	1	2	5	4

B Taldea	Jokatuak	Irabaziak	Berdinduak	Galdutak	Puntuak
KARKIS	6	6	0	0	12
ORBELA	6	5	0	1	10
BERROGEI DURO	6	4	1	1	9
ZAZPI	6	4	0	2	8
KUNTA KINTE	6	3	0	3	6
UDABERRI	7	2	0	5	4
AURTEN BAI	6	2	0	4	4
BORKORDO	8	1	1	6	3
S. PITXOTE	7	1	0	6	2

Futbito Txapelketa-ren gailurrean gaudela esan daiteke. Horrela jarraituz gero, Liga jokatzeko moduan egongo lirateke A taldeko eta B taldeko lehendabiziko lekuetab dauden taldeak. Orain arteko sailkapenari begiratu gero, aukerarik handienak Sanroketarrak, PSK, Kosakos eta maser taldeek dute A sailean, eta Karkis, Orbela, Berrogei Duro eta Zazpi taldeek B sailean.

Bestalde gol gutxien jaso duten taldeak Kosakos (A saila) eta Karkis (B saila) dira eta gol gehien sartu dituzten taldeak, berriz, Sanroketarrak (A saila) eta Orbela (B saila).

KIROL ALBISTE -

● **Arakistainek Besaian-iragur**

J. M. Arakistainek Beasain taldea utzi du. Arrazoa "nekatuta nagoelako eta erlajatzeko gogoa neukalako izan da" Hiruzpalau hilabete-tan futbola alde batera uzteko asmoa agertu digu. Hala ere, "eskaintzaren bat egiten badidate, momentuan erabaki bat hartuko dut"

● **Baqueira Beret-en eskia**

Ibai Gimnasioak Baqueira Beret-era irteera antolatu du hilaren 21etik 23ra bitartean. Gosaria eta afari bat, bi eguneko forfai eta autobusean bidaia sartzen dira 17.900 pta.ko prezioan

● **Elgoibartar korriariak Zarutzeko krosean**

Mintxeta Taldeko laebinak eta infantilak Zarutzeko XXVIII. Isidoro Unzueta sarian izan ziren joan den domekan. Albeninetan Ana Etxanizek irabazi egin zuen eta Alaitz Merino laugarren iritsi zen helmugara. Mutiletan Javier Ausinek bigarren lekua lortu zuen eta Julen Merinok hamabosgarrena. Infantiletan partehartzaile bakarra Nuria Revuleta izan zen

EMAITZAK

Futbola

Haundi 2 - Urola 0
S. Tomas Lizeoa 0 - Elgoibar 0 (Oho. jub.)
Gazteak 1 - Elgoibar 3 (2. Jubenilak)

Saskibaloia

Elgoibar 84 - Haurtzaro 56

Eskubaloia

Arrate 17 - Pneumax Elgoibar 30 (Kad. mut.)
Unceta Elg. 13 - Hernani 15 (Kad. nesk.)
Egia 18 - Tecnomeca Elg. 26 (Jub. mut.)
Urnieta 26 - Hyundai Elg. 23 (Seniorrak)

Pilota Deba Arroko Txapelketa

Kadeteak: Jauregi/Eguren 22 - Perea/Arrillaga 13 (Lagunak)
Jubenilak: Laskurain/Arrieta 22 - Leon/Balzola 17 (Lagunak)
Seniorrak: Calles/Mendiola 22 - Ansola/Alzibar 4 (Lagunak)

Xakea

Idiazabal A 2 - Elgoibar A 2 (1. maila)
Elgoibar C 1 - IDiazabal B 3 (3. maila)

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 15
10,00 Eibar - Urola (Kadeteak)
12,00 Urki - Beti Sutan (2. erreg.)
15,30 Elgoibar - Bergara (Neskak)
17,15 Pedrusko - Zestoa (2. erreg.)
19,00 Urki - Arrasate (Jubenilen kopa)
Igandea, 16
10,00 Eibar - Vasconia (1. erreg.)
12,00 Elgoibar - Lagun Onak (Oho. inf.)
14,00 Eibartarrak - Gazteak (2. erreg.)
16,30 Elgoibar - Ordizia (Oho. jub.)

Eskubaloia, Kirolegian

Larunbata, 15
16,00 Unceta Elg. - Zarautz (Kad. nes.)
17,30 Pneumax Elg. - Egia (Kad. mut.)
Igandea, 16
9,30 Pagoaga Elg. - Urola (Jub. neskak)
11,00 Tecnomeca Elg. - Ordizia (jub. mut.)

Sagardotegiaren Gida

Sagardoa edan eta bapo jateko gogoa duzu baina ez dakizu nora jo?

Hona hemen aukera zabalak!

REZOLA (Astigarraga)

- **NAGUSIA:** J. Ramon Rezola Isasa.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik apirilera arte. Igande eta larunbat eguerdian zabalik.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 100 lagun, eserita.



ZALBIDE (Abaltzisketa)

- **NAGUSIA:** Jose Martin Garmendia.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik urriraino egunero zabalik.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 100 lagun, zutik nahiz



ASTARBE (Astigarraga)

- **NAGUSIA:** Joxe Manuel Astarbe.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik apirilera.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 140 lagun zutik nahiz eserita.



ABURUZA (Aduna)

- **NAGUSIA:** J. Joxe Aburuza Otegi.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik irailera.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 200 lagun.



LIZEAGA (Astigarraga)

- **NAGUSIA:** Gabriel Lizeaga Ziaznabar.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik apirilaren bukaerara arte.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.



MENDIZABAL (Astigarraga)

- **NAGUSIA:** J. Mendizabal Idarreta.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** Txotxean urtarriletik apirilera eta urte osoan jatetxea.
- **JATEKOA:** txotx garaian haragia ekarri daiteke.
- **LEKUA:** 240 lagun.



BIDEBITARTE (Oiartzun)

- **NAGUSIA:** M. Jesus Retegi.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik maiatzera.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 80 lagun eserita.
Bidebitarte baserria, Arragua auzoa



ISASTEGI (Tolosa)

- **NAGUSIA:** Migel Mari Lasa Arostegi.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik maiatzera.
- **JATEKOA:** sagardotegikoa nahiz norberak eramandakoa.
- **LEKUA:** 200 lagun.
Aldaba-Txiki auzoa, 15



TXERTAKADI (Zaldibia)

- **NAGUSIA:** Jose Martin Irazustabarrena.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urte osoan irekita goizeko 9etatik.
- **JATEKOA:** aurrez enkargaturik norberak nahi duena.
- **LEKUA:** 160 lagun.
Urtesabel auzoa (Zaldibia)



ETXE-ZURI (Olaberri)

- **NAGUSIA:** Felix Garmendia.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urte guztian irekita.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 110 lagun.

Etxe Zuri baserria (Olaberri)




OTATZA (Zerain)

- **NAGUSIA:** Ramoni Lopategi.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik apiril bukaerara arte.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua edo norberak eramandakoa. Urtean zehar merenderoa.
- **LEKUA:** 100 lagun.
Otatza baserria (Zerain)



OTEGI (Lasarte)

- **NAGUSIA:** Julian Otegi Egia.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik apiril bukaerara arte.
- **JATEKOA:** sagardotegikoa edo norberak ekarria.
- **LEKUA:** 150 lagun.
Soile Enea baserria (Lasarte)
☎ 36 50 29



MATXO (Urnieta)

- **NAGUSIA:** Manuel Igarategi.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik denboraldia bukatu arte.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 100 lagun.
Idiazabal, 42 (Urnieta)



LARREGAIN (Hernani)

- **NAGUSIA:** Ixabel Santa Kruz.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik apiril bukaerara arte.
- **JATEKOA:** sagardotegikoa zein norberak eramandakoa.
- **LEKUA:** 150 zutik nahiz eserita.
Larregain etxea, Ereñozu



ZABALA (Aduna)

- **NAGUSIA:** Ramon Zabala Mendizabal.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik apiril bukaerara arte.
- **JATEKOA:** sagardotegikoa zein norberak eramandakoa.
- **LEKUA:** 120 lagun.
Garagarza baserria (Aduna)



INTERESE-

OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak 461111
 Txanda hartzeko 743354
 Planning-a 742950
 Alkoholiko Anonimoak 740385
 D.Y.A (anbulantzia) . . 464622
 Gurutze Gorria . . . 743864
 Mendaroko Ospitalea. 756264
 Odol Emailak . . . 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak 740442
 PESA (Eibar) 902 10 12 10
 Taxi geltokia 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua 744366
 Udal Kirol Patronatua
 744415
 Kultura Zerbitzua . 742158
 Mendaroko Udala. 756100
 Ongizate zerbitzua 741008
 Udaletxea 741050
 Udaltzaingoa 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra . 741626
 Kirolegia 744415
 Kontsumo Bulegoa 743088
 Liburutegia 743525
 Musika Eskola . . . 742145
 Mintxeta 744315
 Parrokia 740842
 Postetxea 741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza 740296
 Zaharren Biltokia . 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola 74 21 41
 Herri Eskola 74 08 79
 I.M.H. 74 41 32
 Herri Institutua
 Arreiturre 74 02 67
 Ezenarro (Meka) 74 44 80
 Ikastola 74 44 41
 L.H.I. 74 44 80
 Pilar Ikastetxea. . 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 74 41 12
 El Diario Vasco . 74 40 73
 El Correo Español 74 10 82
 Egin 10 84 21

14
ostirala

19,00 ASANBLADA GAZTETXEARI BURUZ
 (Alkatearekin izandako bileraren berri emango da) Madalan

19,30 KORRIKAREN AURKEZPENA ETA BIDEO EMANALDIA
 Kultur Etxean
 Antolatzailea: AEK euskaltegia

19,30 AUTOPOTENTZIAZIO TAILERRA
 Arduraduna: Txema Ibrain pedagogoa eta terapeuta
 Laguntzailea: Kemen Belardena
 San Frantzisko 4an (atzeko aldean)

22,15 ZINEA
 "Mis dobles, mi mujer y yo"

15
larunbata

11,30 ZAZPIKIREN BILERA Ganbaran

12,00 LEIZARPEREN ERAKUSKETA
 Kultur Etxean

19,00 MANIFESTAZIOA
 "Gazteak kale gorrian, Gaztetxea orain" lemapean Madalatik

19,30-22,15 ZINEA
 "Mis dobles, mi mujer y yo"

16
igandea

12,30 BANDAREN KONTZERTUA
 Herriko Antzokian

16,30-19,30-22,15 ZINEA
 "Mis dobles, mi mujer y yo"

17
astelehena

19,00 HITZALDIA
 Gaia: Autoestima
 Hizlaria: Begoña Berroeta
 Kultur Etxean
 Antolatzailea: Herri Eskola

22,15 ZINEA
 "Mis dobles, mi mujer y yo"

ZIN



Mis dobles, mi mujer y yo

Doug Kinney kokoteraino dagoen gizan bat da. Lanak eta familiak ez diote uzten geratzen zaion denbora libre apurraz disfrutatzen. Egun batean Owen doktorea ezagutzen du, genetikan aditua. Medikak pertsonaia bat baino gehiagotan bihurtzeko aukera ematen dio bere bizitza hobeto kontrola dezan. Bere emazteak senar bat baino gehiago dituela kon-

Zuzendaria: Harold Ramis
Antzeleak: Michael Keaton, Andie MacDowell.

gR

Goki eReformak, s.l.

ERREFORMAK

FATXADAK ETA TEILATUAK

OBRAK OROKORREAN

DEBA KALEA 12
 TEL.: 74 42 23
 20870 ELGOIBAR

20 osteguna

19,00 HITZALDIA

Gaia: Sexua. "Bizitza hainbat arazo"
Kultur Etxean
Antolatzailea:
Elgoibarko Izarra

22,15 ZINE KLUBA

"Libertarias"
Antolatzailea: Ongarri
Zine Kluba

21 ostirala

19,00 HITZALDIA

Gaia: "Haurra, etxetik eskolara. Eskolaratze prozesua"
Hizlaria: Izaskun Madariaga
Kultur Etxean
Antolatzailea: Herri
Eskola

22,15 ZINE KLUBA

"Libertarias"

● Autopotentziatio tailerra

Hilaren 14an, 22an eta 23an, Kemen Belardendak antolatuta, autopotentziatio pertsonala, autoestima, komunikazioa eta harremanak garatzeko saioak izango dira San Frantzisko kaleko 4an (atzeko alde tik du sarrera). Autoestima, konsziente izatea, gorputza eta buruaren arteko oreka etab. landuko ditu Txema Ibrain pedagogogo, psikologo eta terapeutak. Informazio gehiago eskuratzeko Kemen Belardendara joan (74 14 54 eta 74 40 31). Hilaren 14ko saioa arratsaldeko 7,30etan izango da. Hilaren 22koa goizeko 10etatik eguerdiko ordu biak bitartean eta 23koa, goizeko 10etatik 2etara eta arratsaldeko 4etatik 8ak arte.

● Ate irekien eguna Herri Eskolan

Herri Eskolak "Ate Irekien Eguna" ospatuko du hilaren 17tik 22ra bitartean guraso eta herritarrei orokorrean ikastetxearen jardunaren berri emateko asmoarekin. Hilaren 17an eta 21ean, hitzaldi bana egongo da Kultur Etxean autoestima eta eskolaratze prozesuari buruz. Bi saioak arratsaldeko 7etan izango dira. Bestetik, hilaren 22an, ate irekien egunaren barruan denetik egongo da: tailerrak patioan, ludoteka, kirolak, bazkaria guraso eta ikasleentzat, pailazoak eta txokolatada. Egun osoan zehar ikastetxea irekita egongo da bazkalorduan izan ezik eta zuzendaritza taldea edozein zalantza argitzeko prest egongo da.



● Bandaren ihauterietako kontzertua

Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du igandean, hilak 16, eguerdiko 12,30etan honako egitarau honekin: "Camino de rosas", "Bells across the meadows", "Revival rag 1920", "La parranda", Rosamunda" eta "Bands around the world". Kontzertua Jose Antonio Osorok zuzenduko du.

● Zazpikiren bilera

Bihar, hilak 15, Zazpiki Irratiak bilera egingo du. Programaren bat duten guztiei Ganbarara ager daitezen eskatzen zaie goizeko 11,30etarako.

ONGARRI zine kluba



Zuzendaria: V. Aranda (Espainia, 1996) Antzezleak: Ana Belén, Victoria Abril, Ariadna Gil, Jorge Sanz, Loles León.

Libertarias

Espainiako historiaren une bat jasotzen du pelikulak. Aragoiko frontean 1936ko uztail eta urriaren artean, "Mujeres Libres" izeneko 6 emakumezkoren taldearen grina politikoak kontatzen ditu. Anarkista itxurakoak eta borrokan parte hartzen duten emakumeak dira. Askatasun utopia baten inguruan elkartzen dira, gerrate zibila galdu zutenek ezagutu zuten bukaera dramatikoarekin aurrez aurre topo egiten duen abentura delarik.

TXAN- DAK

FARMAZIAK

	Egunez	Gauetz
14	Bidasolo	Anduaga
15	Etxeberria	Escala
16	Etxeberria	Escala
17	Yudego	Zabaleta
18	Etxeberria	Etxeberria
19	Bidasolo	Escala
20	Bidasolo	Bidasolo
21	Yudego	Yudego

OKINDEGIA
8 igandea **FOTERO**



I. URTEURRENA

1996ko otsailaren 11n, 21 urte zituela hil zen **GAIZKA GALDOS ARAKISTAIN**en oroimenez **URTEMEZA** izango da **otsailaren 16an**, igandea, eguerdiko 12etan Mendaroko Garagartza Parrokian. Bere sendiak **ESKERRAK** eman nahi dizkie bertan izango diren guztiei.



Salerosketak

◆ SALDU ◆

- ◆ Panasonic KR-P1180 inpresore matritziala, Windows 95ekin konpatibler salgai. (Mikel) ☎ 74 19 21
- ◆ "LUR" HIZTEGI enziklopedikoa saltzen da. ☎ 79 78 26. Goizez 10etatik 1etara eta arratsaldeaz 4etatik 9etara.
- ◆ 1,05x2 luzerako OHE estreintatu berria salgai. ☎ 74 23 22
- ◆ ESKALADAKO MATERIALA salgai. 60x1'5 soka eta arnesa. Merke. ☎ 74 02 30
- ◆ SEAT RITMO bat salgai. Prezio onean. ☎ 19 50 89 Emilia
- ◆ PEUGEOT ST motorra saltzen dut. 49 cc., gutxi erabilia eta ondo zaindua. ☎ 74 06 33 (Xabier)
- ◆ KITARRA ELEKTRIKOA eta ANPLIA erosiko nituzke. ☎ 74 37 23 (Eguerdián eta gauean)
- ◆ RENAULT 9 GTL kotxea saltzen dut. Oso egoera onean dago. ☎ 74 36 98
- ◆ Golf GTI SS 1260 AH bat saltzen dut. Egoera oso onean dago. ☎ 75 51 90
- ◆ SKIAK ETA BOTAK salgai. Dynastar 1,85ko skiak, Tyrolia loturekin. Botak (Nordica) 42-43. Egoera onean. ☎ 74 18 55 (Gauzez)
- ◆ **EROSI** ◆
- ◆ Trikitia jotzeko bigarren eskuko SOINU TXIKI BAT erosiko nuke. ☎ 74 06 55 (8etatik aurrera)
- ◆ Urrezko domina topatu nuen asteartean Parrokian. Jesusen bihotzaren irudia du eta atzean inisial batzuk. ☎ 74 23 23
- ◆ Duela 15 egun motxila txiki bat galdu nuen Plaza Txikiko parkean. Urdina eta zuria da eta barruan dantzarako zapatilak daude.
- ◆ Errezko eratzun bat agertu da Aterpe taberna ingururan. Manuel 26-7-89 dauka grabatuta. Udaltzaingoa dago.
- ◆ Norbaitek 1996ko abenduaren 19ko EGIN egunkaria badu, medezez dei diezadala ☎ 74 23 36 telefonora, gaueko 9etatik aurrera.
- ◆ Husky eta Pastor aleman arteko kruzea duen txakur bat emango nuke. Oso polita da eta 3 urte ditu. ☎ 74 38 82
- ◆ Eskusoinuak konpontzen ditut, marka eta modelo guztiak. ☎ 47 00 01 (arratsaldeko 5etatik 7etara).

Bestelakoak

Lana

◆ ESKAERA ◆

- ◆ Ordenadorez lanak egiten ditut bai enpresentzat eta bai partikularrentzat. Deitu ☎ 74 22 86 zenbakira.
- ◆ Pertsona nagusiak zainduko nituzke. ☎ 74 30 30
- ◆ Ileapaintzailea naiz eta etxez etxe mozten dut ilea. Mari Karmen. ☎ 74 21 55
- ◆ 23 urteko neska eskaintzen da sukaldari lanetarako edo garbiketarako egiteko. Gidatzeko baimenarekin. (Rosi) ☎ 74 36 38
- ◆ Garraiolaria eskaintzen da furgonetarekin. ☎ 989 09 31 86
- ◆ Harategi edo urdaitegi batean edo taberna batean pintxoak egiten lan egingo nuke. ☎ 74 11 40 (Iru-ne)
- ◆ Administrari lanak egingo nituzke, esperientzia daukat. Segituan lanean hasteko prest nago. ☎ 74 39 39 (Puri)
- ◆ **ESKAINZA** ◆
- ◆ Uztailetik aurrera Alemanian aupa bezala lan egiteko pertsona bat behar du bertako familia jator batek. ☎ 74 17 80
- ◆ Informatika, enpresariales, fisika eta kimikan lizentziatu edo diplomatuak behar ditugu klaseak emateko. Bidali kurrikuluma 245 postakutxatilara, Bergara.
- ◆ Neska bat behar da etxeko lanak egin eta 2 haur zaintzeko. ☎ 74 32 94 (18,00etatik aurrera deitu)
- ◆ Euskaldun emakume bat behar dugu etxeko lanak egin eta ume bat zaintzeko. ☎ 20 14 80 (Lanorduetan deitu. Miren)
- ◆ Martxan dagoen fotokopisteria eta paperdenda bat traspasatzen da Ermuan ezin dugulako atenditu. ☎ 17 07 07 / 74 21 43

Partikularrak

- ◆ Microsoft Office-i buruzko klase partikularrak emateko pertsona bat behar da Elgoibarren. (8,00-17,00) 74 06 00
- ◆ Matematika, kontabilitatea, praktika administratiboak, kosteen kontabilitatea eta abarri buruzko klase partikularrak ematen ditut. Maila guztiak eta talde mugatuak. Esperientzia dut. ☎ 74 21 65 Javi
- ◆ Ingelesko partikularrak emango nituzke, bai eta itzulpenak egin ere. ☎ 74 14 82 Edu

Etxebizitzak


- ◆ Pisu amoblatua alokatzen da San Frantzisko kalean, 3 gela, egongela, sukaldia eta bainugela ditu. ☎ 94 43 06 196 (gauzez)
- ◆ Etxebizitza salgai Erretxindin. Sukaldia, komuna, egongela, lau logela, ganbara eta gas berogailu zentrala. ☎ 74 44 66
- ◆ Pisu daukat saltzeko Santa Ana kalean. 3 logela, sukaldia, egongela eta bainua ditu eta erreformatua dago. ☎ 74 37 25
- ◆ Etxe bat saltzen da Arregitorre 14an, 9. pisua. 3 gela, egongela, sukaldia eta 2 bainu. Oso eguzkitua. ☎ 74 01 34

Agurrak

- ◆ Otsailaren 12 eta 15ean 10 eta 16 urte betetzen dituzten **Xabi eta Ainhoari** zorionak bere familiaren partez.
- ◆ Zorionak **Eluska Escudero** bere kurtso mutilen partez San Valentín egunean 14 urte betetzen dituelako.
- ◆ Hilaren 17an super urteak betekoen **Itxaso Perezi** "Super ultra mega plus" zorionak bere lagun Ana eta Nerearen partez.
- ◆ Roberto eta Gaizkaren partez eskerrak eman nahi dizkiogu **Jose Mariri** hain maisu majoa izateagatik.
- ◆ Musu bat **Ikerri** otsailaren 12an 29 urte egin zituelako. Iraitz eta Maialenen partez.
- ◆ Zorionak **Nerea Alvarez** gaur, otsailak 14, 16 urte betetzen dituelako bere familia osoaren partez.
- ◆ Zorionak **Manu Ibarluzeari** otsailaren 12an 16 urte bete zituelako neska talde baten partez.
- ◆ Zorionak **Amaia Fernandez** otsailaren 11n 12 urte egin zituelako. 6. mailako partez.
- ◆ Zorionak **Amaia Fernandez** otsailaren 11n 12 urte bete zituelako. Bere lagun partez.
- ◆ Otsailaren 9an 80 urte bete zituen **Maria Zubiaurreri** zorionak bere familiaren eta adiskideen partez. Zorionak!
- ◆ Otsailaren 19an 12 urte betekoen dituen **Eukene Gil**-i zorionak bere adiskideen partez.
- ◆ Otsailaren 14an 80 urte betetzen dituen **Maria Astigarragari** muxu handi bat bere familiaren partez. Zorionak amama!

Agurrak


- ◆ Zorionak **Iñigo Arreseri** gaur, hilak 14, 6 urte bete dituelako. Ana eta bere familiaren partez.



- ◆ Zorionak **Erika Fernandez** otsailaren 13an 14 urte betetzen dituelako, bere lagun eta ahizpen partez.



- ◆ Zorionak **Erika Fernandez** gaur 14 urte betetzen dituelako. Idoia eta Maitearen partez.



- ◆ Zorionak **Iratxe Osorori** otsailaren 17an 8 urte egingo dituelako. Mirenen partez.



- ◆ Otsailaren 13an **Ainhoa Alonsok** 12 urte bete zituen zorionak eman nahi dizkiogu, Andres, Miren eta Nereak.



- ◆ Zorionak **Iñaki Ovejerori** otsailaren 14an 14 urte betetzen dituelako. Familia guztiaren partez.
- ◆ Zorionak **Iñaki Ovejerori**

- ◆ San Valentín egunean 14 urte betetzen dituelako. Bere kurtsoko nesken partez.

- ◆ Zorionak **M. Pilarri** otsailaren 6an urteak bete zituelako. Bere alaba Amaieren partez.

- ◆ Zorionak amama **Obduliari** atzo urteak egin zituelako. Familiak.

PROIEKTU BATERATUA

“Adin bakoitzak bere gunea,
gune guztiek proiektu bera”

HERRI ESKOLA (2- 12)

LEHEN
HEZKUNTZA



HAUR
HEZKUNTZA

Herri Eskolako guraso elkartea

- Eskola Publiko Euskalduna
- Euskaraz (D eredua)
- Irakasle guztia

ARREITURRE E. H. I. (12- 16)

D.B.H.



E.S.O.

Lehen zikloko irakasle goa

- Irakasle goa osoa euskalduna eta urte askotako esperientziaduna.
- Irakasle bakoitzak bere espezialitatean, espezialitate bakoitzean irakasle bat.
- Hezkuntz proiektu bateratua eta kurrikulua



75 61



74 08

EH 74 02

AURREMATRIKULA: Otsailaren 17tik-28ra